



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure akademiako bezeroak eta irakasleak funtsezko eragileak izango dira, hauek gabe ezin izango litzatekeelako posible izan gure proiektua aurrera eramatea.

Gainera, lau baliabide mota desberdin ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** Enpresan aurkitu ditzakegun elementu fisiko guztiak biltzen dira eta hurrengoak izango ditugu: ordenagailuak, bozgorailuak, arbelak, fokuak, errotulatzailak, kamarak, mahaiak eta aulkiak.
- **Baliabide intelektuala:** Kasu honetan bakarra izango dugu; Marka. Akademian marka bat dugu beste hizkuntza eskolekiko desberdintzeko. Marka eta logoaren bidez ospe eta loria lortu nahi ditugu.
- **Giza baliabideak:** Taldea lau jabe eta beste lau langilez osatzen da. Hona hemen bakoitzaren aurkezpena:
 - Unai Cornejo:** Sistema digitalen diseinua ikasi zuen, Bartzelonan. Bere lan prozesuan Espaniako enpresa batzuetan egin du lan. Orain Ingeleseko akademian bukatu du eta bertan web-gunearen diseinuan lagunduko du.
 - Hodei Urkiaga:** Hainbat herrialdeetatik bidaiatu eta hainbat hizkuntza ikasi ondoren, irakasleekin komunikatzen da. Bere eginkizun nagusia irakasleei gauzen berri ematea da.
 - Nahia Olaizola:** Enpresa eta Administrazio Zuzendaritzan ikasi zuen Donostian. Gaztea den harren badu esperientzia enpresen kudeaketan.
 - Lide Furones:** Finantza eta Kontabilitatea ikasi zuen Madrilgo Rey Juan Carlos unibertsitatean. Enpresaren finantzak aurrera eramango ditu.

Bestalde, hona hemen beste 4 irakasleren aurkezpenak:

John Lewis: Ingalaterran jaiotako eta hainbat titulu (First, Advance, Profesiens) lortutako 22 urteko gaztea da.

Alice Palmer: Eskozian jaio zen. Bidaiatzen egon ondoren ingeleseko klasean ematea adostu zuen.

Charlotte Brown: Ingalaterrako Bibury herrian jaio zen. Firsteko azterketan zuzentzen lan egiten du udan eta gabonetan.

Poraic O`connor: Irlandan jaio zen. Orain Washingtonen bizi da irakasle lanak egiteko joan zelako.

- **Finantza- baliabidek:** Bankuari eskatuko diogun mailegua 10.000€-koa izango da, ordenagailuak, kamarak, bozgorailuak etb. erosteko. Inbertsio hau 3 urtetan ordaintzea espero dugu.